

## KOSTUEN EGITURA:

Gure enpresa balioan oinarritutako negozioa izango da, gure helburua ez da prezioak murriztea izan behar, baizik eta gure zerbitzua ahalik eta kalitate handienekoa izatea. Gure marka pertsonala, kalitatezko lanarekin erlazionatzea nahi dugu bezeroak. Gure zerbitzuen kostuak aldakorrak zein finkoak izango dira. Alde batetik, kostu aldakorrak izango dira argazki kamaren eta grabatzaileen prezioa, izan ere, erosten dugun kantitatearen arabera izango da hauengatik ordaindu beharrekoa. Bestalde, webgunea sortu ahal izateko ordaindu beharrekoa kostu finko bat izango da, bere prezioa ez delako aldatuko.